

Egun batean, Miel Otxinek Ilargiari adierazi zion bere nahia. Zera esan zion:

-Zu beti nire ondoan izatea gustatuko litzaidake, dama erakargarri hori! Ez gaueko ordu apur horietan bakarrik. Nire bakardea samurrago egiten baitit zure presentziak. Irudimena pizten dit, alaiago sentiarazten. Zure printzek nire bizitza latz hau goxatzen didate. Uneoro sumatzen dut zure beharra...

Halako batean, Ilargia, Miel Otxinen hitzek hunkituta edo, hizketan hasi eta honela esan zion:

-Benetan hitz politak zureak! Biziki hunkitu nautel! Eguzkiarekin hitz egingo dut zure nahia adierazteko. Eta betiko ezingo bada ere, eguzkiak, behingoz bederen egun osoa zurekin igarotzeko aukera emango didalakoan nago. Eguzkiarekin adostu bitartean, gauero atera zaitez hona eta sua piztu, izango duzu-eta nire berri.

-Baina egun bat besterik ez? Nik ez dut nahi eguzkirik! Gaua eta negua nahi ditut betiko! -esan zuen oihuka Miel Otxinek Ilargiak entzuteko moduan.

Ez zion erantzun, ordea, Ilargiak.

-Sua pizteko agindu dit. Agian, su handi-handia egiten badut, egun bat baino gehiago emango dit -pentsatu zuen bere artean.



Galderak:

1.

Noiz jartzen da marratxoa (-)?

- Pertsonaia bat hitz egiten hasten denean.
- Ipuina idazten duenak, nork hitz egiten duen adierazten duenean, (-esan zion-, -hitz egin zuen anaiak-).
- Galdera baten ondotik.

2.

Non jartzen da marratxoa?

- Pertsonaia bat hitz egiten hasten denean, hasieran.
- Galderen ondotik.
- Ipuina idazten duenak nork hitz egiten duen adierazten duenean, hasieran eta bukaeran.
- Esaldien tartean.

3.

Noiz jartzen da galdera ikurra?

- Galdera denean.
- Erantzuna denean.
- Galdera ez denean.

4.

Non jartzen da galdera ikurra?

- Euskaraz, galderaren amaieran.
- Gaztelaniaz, galderaren hasieran eta amaieran.
- Euskaraz, galderaren hasieran.
- Gaztelaniaz, galderaren amaieran.

5. Noiz jartzen da harridura ikurra?

- Zalantza adierazten denean.
- Harridura adierazten denean.
- Galdera egiten denean.

6. Non jartzen da harridura ikurra?

- Euskaraz, harriduraren amaieran.
- Gaztelaniaz, harriduraren hasieran eta amaieran.
- Euskaraz, harriduraren hasieran.
- Gaztelaniaz, harriduraren amaieran.

7. Pertsonaia batek hitz egiten bukatzen duenean...

- Puntua eta aparte jarri eta hurrengo lerroan idazten hasten da.
- Puntua eta aurrera idazten da.
- Koma jartzen da eta lerro berean idazten jarraitzen da.

Hona hemen Txanogorritxoren eta Otsoaren arteko elkarrizketa. Hitz egiten hasteko marratxoak, hitz egiten bukatu ondoren jar-tzen diren marratxoak, galde ikurrak eta harridura ikurrak falta zaizkio. Jar iezazkiozu:

"Kaixo Nola duzu izena galdetu zion otsoak adeitsu.

Izuturik zegoen Txanogorritxo.

Ez beldurrik izan esan zion otsoak, lasaitzeko asmoz. Oso baketsua naiz.

Otsoa jatorra zela ikusita, lasaitu egin zen eta esan zion neskatoak:

Txanogorritxo naiz.

Itxura honekin, jendea ez da nirekin fidatzen esan zion otsoak, baina lagunak behar ditut nik ere.

Otso gaixoa esan zuen neskatoak errukituta.

Nora zoaz galdetu zion otso maltzurak.

Amonaren etxera. Basoaren beste muturrean dago erantzun zion neskato-ak.

Lasterketa egingo dugu.

Ondo da esan zion Txanogorritxok, baina eman niri abantaila, zu oso biz-korra zara eta.